BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

6092

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 8koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena; honen bidez, Iratxe Garcia Zabala lankide boluntarioari beka emateko Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional erakundeari emandako laguntzari uko-egiteko eskaera onartzen da. Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat laguntzak emateko 2010. urterako deialdiaren baitan eman zen diru-laguntza hori, erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko.

Garapen Lankidetzarako zuzendariaren 2010eko azaroaren 9ko Ebazpenaren babespean, Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional erakundeari 16.200 euroko diru-laguntza eman zitzaion, Iratxe Garcia Zabala lankide boluntarioari beka emateko (NBE-2010BA/0061).

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2011ko uztailaren 11n bidalitako komunikazioan, partzialki bekari uko-egiteko eskaera bidali zuen, espedientean jasotako arrazoiengatik.

Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat laguntzak arautzen dituen otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuak (erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak ematekoak diren laguntzak), 9. artikuluan, ezartzen du lankide boluntarioak bekari uko egiteak kobratutako eskubide ekonomikoen itzulketa proportzionala ekarriko duela eta, hala behar izanez gero, ordaindu gabekoak ez direla ordainduko.

Uko egindako zenbatekoa kalkulatzeko, garatu gabeko bekaldia hartuko da kontuan.

Kasu honetan, itzuli beharreko kopurua 1.395 eurokoa da.

Proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzeko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeentzat eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzat 2010erako laguntzak emateko deialdiaren barruan, Iratxe Garcia Zabala lankide boluntarioari emandako laguntzari uko-egiteko eskaera onartzea.

Horren ondorioz, Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional Erakundeak dagokion kopurua (justifikatuta ez dagoena) itzuli beharko du, hau da, 1395 euro. Halaber, bigarren ordainketa 6.480 eurokoa egiteko akordioak indarra galdu du.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 8a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.